# Alkartasuna

**Alkartasuna Fundazioaren aldizkaria** | 2023ko urtekaria | 74 zk.




# Aldizkari bat ziklo politiko berri batentzat

# **non** zer

**3**
Editoriala
**Itzulera**

**4–5**
Erreportajea
**Alkartasun Eguna 2023**
***Mugarik gabeko alkartasuna***

**6–7**
Crónica
**Plurinacionalidad y modelo territorial**

**8**
Erreportajea
**Elecciones Europeas**

**9**
Elkarrizketa
**Europar hauteskundeak**
Adrián Fuentes

**10**
Elkarrizketa
**Hezkuntza Legea**
Iban Asenjo

**11**
Opinión
**Vivienda**
Ricardo Burutaran

**12–13**
Berriak

**alkartasuna**
Alkartasuna Fundazioaren
aldizkaria

200 ale
2023ko urtekaria
Portuetxe bidea, 23 | Donostia
D.L./L.G. SS 714/88

**Zuzendaria**
Asier Gómez Barrenetxea

**Erredakzioa**
Asier Gómez Barrenetxea
Mikel Oraá

# Itzulera

**2023a berrelkartze–urtea izan da guretzat. Irailean itzuli zen Alkartasun Eguna, Iparraldeko Urruñan ospatutako hitzordua, non Euskal Herriko lurralde guztietako afiliatuok otordu solidario baten inguruan berriro elkartu ginen, egoera politikoaz hitz egiteko eta besta giroan Anje Duhaldek eta Niko Etxartek eskainitako kontzertuetaz gozatzeko.**

**Oraingoan Alkartasuna aldizkaria dator. Esku artean daukazuna Alkartasuna Fundazioarekin elkarlanean argitaratu dugun aldizkaria da. Gure asmoa barne aldizkari bat baino gehiago izatea da, interes orokorreko aldizkaria izan nahi dugu, euskal gizarteak aurrean dituen erronka berriei heltzen diena, Alkartasuna ikuspuntuaren esentziari eutsiz eta aurrean dugun ziklo politiko berrirako erabilgarria den tresna komunikatiboa sortuz.**

**Ezker subiranistak une politikoa irakurtzen jakin du; adimenez jokatuz orain arte saihestu diren eztabaidak irekitzeko. Hala nola Espainiako estatuaren lurralde–eredua, eta agenda soziala negoziazioaren lehen lerroan jarri du, pertsona gehiagorentzako eskubide gehiago lortzeko helburuan tinko. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan proiektu jeltzaleak bizi duenaren guztiz kontrakoa den egoera: proiektu nekatu bat, ziurgabetasunaren aurrean ziurtasunik eskaini ezin duen proposamen agortua.**

**Ale honetan, 2023an agenda politikoan azaldu diren gai batzuk aztertzen ditugu, baina batez ere, aldizkari berri baten zumeak jartzen ditugu guztion artean eraikitzen ari garen garai berrirako.**

El 2023 ha sido un año de reencuentros. En septiembre volvió el Alkartasun Eguna, una cita en Urruña, Iparralde, que sirvió para que afiliadas y afiliados de todos los territorios de Euskal Herria nos volviéramos a juntar alrededor de una comida, en este caso solidaria, conversáramos sobre la situación política y disfrutáramos de los conciertos de Anje Duhalde y Niko Etxart.

También vuelve la revista Alkartasuna. Lo hace en colaboración con la Fundación Alkartasuna, con vocación de ser algo más que una revista de consumo interno. Queremos ser una revista de interés general, que aborde los nuevos retos a los que se enfrenta la sociedad vasca con una visión 100% Alkartasuna y desde el pleno convencimiento de que estamos ante un nuevo ciclo político.

El soberanismo de izquierdas ha sabido leer el momento político; jugando con inteligencia para abrir debates que hasta ahora se evitaban, como el modelo territorial en el Estado español, y poniendo la agenda social en primera línea de negociación para conseguir más derechos para más personas. Una situación totalmente contraria a la que vive en estos momentos el proyecto jeltzale, un proyecto agotado incapaz de ofrecer certezas ante la incertidumbre.

En este número abordamos algunos de los temas que han sido noticia durante el 2023, pero, sobre todo, ponemos los mimbres de una nueva revista para el nuevo tiempo que estamos construyendo.



# *Mugarik gabeko alkartasuna!*




Eusko Alkartasunako afiliazioa Urruñan bildu zen Alkartasun Eguna ospatzeko, lau urteko itxaronaldiari amaiera emanez. Hunkigarria izan zen, afiliazioarekin berrelkartzeko eta utzi gaituzten alderdikideak oroitzeko eguna.

Alkartasun Egun honen izaera herrikoia azpimarratzekoa izan zen. *"Mugarik gabeko alkartasuna"* lemapean migratzaileek Bidasoa ibaiaren bi ertzetan jasaten dituzten giza eskubideen urraketak salatu ziren, bazkari herrikoia egin zen Harrera elkartearen alde eta Niko Etxart eta Anje Duhalderen kontzertuetaz disfrutatzeko aukera egon zen.

Urruñan ere EH Bildu eta EH Baiko ordezkariak, Philippe Aramendi Urruñako alkatea eta Jean–René Etchegaray Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria egon ziren. Beraiekin batera nazioartetik etorritako bi gonbidatu egon ziren, Lydie Massard eurodiputatu bretoia eta Jean–Félix Acquaviva Korsikako diputatua.

Miren Urreiztieta Iparraldeko koordinatzaileak hasiera eman zion ekitaldi politikoari. Bidasoa zeharkatzean migratzaileek jasaten dituzten giza eskubideen urraketak gogoratu zituen, eta Irun eta Hendaia arteko Santiagoko zubiaren itxiera salatu zuen. Zubia Frantziako Tourrerako bakarrik ireki zuten, eta, ondoren, berriro itxi zuten. Azkenean, zubia urriaren 29an berrireki zuten.

Laurence Hardouinek, iparraldeko afiliatua eta Baionako alkateordea dena, gorazarre hitzak izan zituen aurreko alkartasun egunetik utzi gaituzten afiliatuentzat eta aipamen berezia eskaini zion 2023ko martxoan zendu zen Philippe Duluc Iparraldeko afiliatu historikoari.





Lydie Massard eta Jean–Félix Acquaviva oholtzara igo ziren Bretainia eta Korsikako estaturik gabeko nazioen egoera bertaratutakoekin konpartitzeko. Euskal Herrian bezala, beraiek ere Frantziar estatu zentralistaren erasoak pairatzen dituzte.




Gazte Abertzaletik, Galder Agudok gazteen ikuspuntua jarri zion egunari. Lan prekarioek eta alokairuen prezio altuek gazteen emantzipazioa oztopatzen dutela aipatu zuen, EAJk Estatuko Etxebizitza Legearekin duen jarrera oldarkorra salatu zuen eta Gazteria Lege berri bat aldarrikatu zuen, *"gazteongandik eta gazteontzat"* sortua.

Ondoren, Eba Blanco Eusko Alkartasunako idazkaria nagusiak hitza hartu zuen. Pozik agertu zen EH Bilduk hauteskundeetan lortutako emaitza onengatik eta ireki den ziklo politiko berriari aurre egiteko garaia dela azpimarratu zuen, EAJren hegemonia politikoa kolokan baitago.



Blancok irailean 25 urte bete zituen Lizarra–Garaziko akordioari buruz ere hitz egin zuen. Lizarra–Garazin abertzale eta subiranisten arteko elkarlana gauzatu eta euskal gizartea aktibatu eta ilusioz bete zen. Eusko Alkartasuna elkarlanerako prest jarraitzen dela horren adibiderik onenak EH Bildu eta EH Bai direla adierazi zuen.

Urkulluk egindako Konstituzio Konbentzioaren proposamenaren aurrean, mahukatik ateratako tranpantojo bat zela, eta helburua plan bat zutela irudikatzea besterik ez zela adierazi zuen Blancok. Gainera, euskal gizartearen ordezkariekin konpartitu eta adostu ordez, Madrilera begira egindako proposamena zela leporatu zion.

Blancoren aburuz, *"EAJri gai bat interesatzen ez zaionean haizagailua martxan jartzen du polemika eta eztabaida antzuekin"*. Estrategia horretan kokatu zuen udal eta foru hauteskundeen atarian Aranzadi eta memoriarekin gertatutakoa. Bere ustetan, asmoa EAJren kudeaketa penagarria ezkutatzea da eta Osakidetza, hezkuntza, Ertzaintza eta EITB jarri zituen adibide bezala.

Ekitaldiari amaiera emateko, Bilakan dantza–konpainiako dantzariek aurresku garaikidea eskaini zieten bertaratutakoei.

Egunak aurrera jarraitu zuen Urruñako Kuxkuxtu txarangarekin eta Harrera Elkarteak prestatutako herri–bazkari solidarioarekin. Arratsaldean, Niko Etxart eta Anje Duhalderen emanaldiekin disfrutatzeko aukera izan zuten Urruñako frontoira hurbildu ziren guztiek. Eta horrela, jai giroan, Alkartasun Egunaren itzulera bere amaierara heldu zen.





# Plurinacionalidad y modelo territorial: un debate abierto y de largo recorrido



Tras las últimas elecciones generales en el Estado español, los resultados electorales y la aritmética parlamentaria en el Congreso han hecho que los votos de las izquierdas soberanistas del Estado sean imprescindibles. La propia investidura de Pedro Sánchez ya sirvió para visualizar que las izquierdas de las naciones sin Estado iban a hacer valer sus votos.

Esta correlación de fuerzas va a ser vital para proseguir afianzando los derechos sociales ya conseguidos, convirtiendo en estructurales las medidas coyunturales aprobadas en los últimos años, y para conquistar otros derechos que están por llegar. Pero las expectativas de las izquierdas soberanistas van más allá de pactar leyes o presupuestos, como ya adelantó Mertxe Aizpurua, diputada de EH Bildu en el Congreso, durante el debate de investidura de Sánchez al reclamar la *"apertura de un debate sereno, ambicioso y profundo que aborde la plurinacionalidad y el modelo territorial del Estado desde el reconocimiento efectivo de las diferentes realidades e identidades nacionales que lo conforman"*.

En este sentido, el Forum Soberanista, organización que aglutina a más de 25 organizaciones políticas, sindicales y fundaciones de Euskal Herria, Països Catalans, Galicia y Canarias, entre las que se encuentra la Fundación Alkartasuna, organizó el pasado 1 de diciembre, en el marco de su V Escuela Soberanista, una mesa redonda titulada ***"El reto plurinacional de esta legislatura. Visiones desde las izquierdas soberanistas de los países del Estado".*** En el encuentro, que tuvo lugar en la sala Can Lliro de Manacor (Mallorca), participaron la EAkide y senadora de EH Bildu Idurre Bideguren, el diputado en el Congreso de Esquerra Francesc–Marc Álvaro, la senadora del BNG Carme da Silva, el diputado de Sumar MÉS en el Congreso, Vicenç Vidal, la diputada de Compromís Àgueda Micó y el diputado en el Congreso de Chunta Aragonesista Jorge Pueyo.

La EAkide y senadora de EH Bildu Idurre Bideguren señaló que actualmente en el Senado *"el debate territorial ya se ha abierto"*, habiéndose abordado tanto en comisiones como en el pleno, aunque matizó que por ahora este no se estaba produciendo *"en los términos que se debería llevar a cabo"*. Aun así, hizo una valoración positiva y calificó de *"momento histórico"* que por fin se pudiese debatir de bilateralidad,

reconocimiento de las naciones o de las causas de los diferentes conflictos políticos.

Bideguren lamentó que, durante las negociaciones para la investidura de Pedro Sánchez, no hubiese sido posible alcanzar un acuerdo entre todas las fuerzas soberanistas para plantear *"unos mínimos, una estrategia en común"*, un acuerdo que, según la senadora, EH Bildu había intentado materializar y que iban a seguir trabajando para que fuese posible porque consideran fundamental el trabajo en común y pretenden reforzar esa estrategia. No obstante, sí que puso en valor el avance que ha supuesto que todas las fuerzas soberanistas pusieran sobre la mesa el reconocimiento de sus respectivas naciones.

Las fuerzas soberanistas son plenamente conscientes de que el debate sobre el modelo territorial es una carrera de fondo. Ha costado mucho llegar hasta este momento de oportunidad y el camino que queda por recorrer no va a ser corto. En su intervención en Manacor, Idurre Bideguren ya reconoció que la composición actual del Congreso y el Senado hacían inviable que, a corto plazo, hubiese un cambio en la Constitución, pero con la misma firmeza resaltó que iba a ser *"un proceso de largo recorrido, esto no se va acabar en 4 años" y que los votos de EH Bildu no eran a cambio de una investidura sino de "cambios profundos"* en el Estado.

## El debate sobre el modelo territorial es *"un proceso de largo recorrido, esto no se va a acabar en 4 años"*

Una y otra vez a lo largo de su intervención, Bideguren subrayó la importancia del trabajo colaborativo entre las fuerzas soberanistas para abordar con mayor fuerza el debate territorial. Puso de ejemplo la labor que desde 2019 realiza el Forum Soberanista generando sinergias entre todas las izquierdas soberanistas de las naciones sin Estado y en la vertiente institucional destacó que la dupla formada por EH Bildu y Esquerra, especialmente en el Senado donde en las últimas elecciones concurrieron en coalición, estaba dando sus frutos.



La necesidad de una agenda soberanista compartida está presente. La realidad de cada formación política y de cada nación es diferente pero hay muchas materias en las que se puede hacer trabajo común, tejiendo alianzas y actuando con visión estratégica para ser todavía más determinantes. La senadora de EH Bildu reflexionó sobre esta estrategia al señalar que a Pedro Sánchez y Yolanda Díaz les resultaba mucho más fácil negociar con cada grupo político de manera independiente, una situación frente a la cual apuntó que *"la unión hace la fuerza y a la hora de negociar también"*.

A preguntas del público en relación a la reforma laboral, Bideguren señaló que todavía quedan cuestiones por abordar de la reforma laboral del PP que Yolanda Díaz no quiso derogar y otras que estaban relacionadas con la evolución del mercado laboral y la salud laboral. Asimismo, aprovechó la ocasión para denunciar que cuando Díaz habla de *"diálogo social"* lo hace siempre para pactar con los sindicatos mayoritarios en el Estado, invisibilizando y ninguneando las realidades y mayorías sindicales que existen más allá de Madrid.

Ver vídeo

**Intervención de Idurre Bideguren en la mesa redonda**

**https://labur.eus/idurre**

# *"La fuerza de la UE reside en su diversidad"*

Lorena López de Lacalle




Entre el 6 y el 9 de junio de 2024 más de 400 millones de ciudadanas y ciudadanos europeos estamos llamados a las urnas para votar a las 705 personas que nos representarán en el Parlamento Europeo durante los próximos 5 años. Asimismo, estos comicios también servirán de pistoletazo de salida para el nombramiento de la nueva Comisión Europea.

La Alianza Libre Europea (ALE) es el partido político europeo que defiende el derecho a la autodeterminación de los pueblos, los derechos humanos, y la diversidad cultural y lingüística. Para las 41 organizaciones políticas que forman parte de este partido europeo, entre las que se encuentra Eusko Alkartasuna, esta cita electoral resulta trascendental y la afrontan con ilusión y propuestas.

Lorena López de Lacalle, presidenta de la ALE y Secretaria de Política Internacional de Eusko Alkartasuna, señala que muchas cosas han cambiado desde que en 2019 los europeos votamos por última vez. Desde entonces, el viejo continente ha sufrido las consecuencias de la materialización del *Brexit*, una pandemia global, la vuelta de la guerra a Europa con la agresión de Rusia a Ucrania, así como las consecuencias económicas derivadas de estas tres cuestiones.

Para López de Lacalle, la izquierda europea concurre a estas elecciones demasiado dividida, mientras que la amenaza de la extrema derecha es cada vez más acuciante por la habilidad que estas formaciones están demostrando para aprovecharse de parte del descontento social que existe entre las clases más humildes, haciendo que su peligroso discurso populista cale.

Según la presidenta de la ALE, uno de los retos a los que la UE va a tener que enfrentarse en la próxima legislatura es la reforma democrática de las instituciones, dotando al Parlamento Europeo de iniciativa legislativa y permitiendo que sea este el que elija al ejecutivo, a la Comisión Europea, y no los Estados. También considera que se debería dotar de capacidad decisoria al Comité Europeo de las Regiones y modificar las leyes electorales que imponen circunscripciones únicas y umbrales para la obtención de representación, dificultando la participación de las minorías y de las naciones sin Estado.

El segundo gran desafío de la UE estará en su capacidad para la diplomacia. *"Que pinte algo en el mundo, que actúe y que sepa mediar"*, apunta López de Lacalle. Para esto es necesario reformar los tratados comunitarios, para acabar con los vetos de los Estados que en muchas ocasiones impiden a Europa actuar. También propone otorgar mayor peso a las regiones, subrayando que *"la fuerza de la UE reside en su diversidad"*.

Como último reto, ha puesto sobre la mesa la necesidad de actuar en común para hacer frente a las crisis climática, social y política. Y es que, en su opinión, *"el trabajo en común durante la crisis del COVID ha demostrado que la UE con voluntad política puede hacer mucho más que los Estados"*.

## Propuestas electorales

De cara a la cita electoral, la ALE ha trabajado una batería de propuestas para modernizar y democratizar las instituciones europeas. En primer lugar, proponen la aprobación de una directiva europea encaminada a resolver los conflictos de soberanía existentes en la UE, un marco normativo que serviría para establecer unas reglas claras y dar cauce a las legítimas aspiraciones de las naciones sin Estado.

Proponen además un estatuto especial para las islas por su insularidad y las cargas que sufren por el turismo de masas. Asimismo, quieren que se preste mayor atención al sector rural, especialmente a las pequeñas explotaciones agroganaderas para garantizar el relevo generacional.

Con respecto a la juventud, defienden una iniciativa para rebajar la edad de voto a los 16 años y establecer un índice europeo que sirva para medir la eficacia de las políticas de juventud. En relación a las desigualdades por motivo de género, solicitan políticas activas que faciliten la participación de las mujeres en la política y para luchar contra la violencia machista estiman imprescindible la aprobación de una directiva europea que establezca políticas comunes, garantizando derechos a todas las mujeres europeas.

# “Europako Parlamentua euskal herritarrok Europan zuzenean ordezkatuta egoteko daukagun erakunde bakarra da”

Adrián Fuentes

**Zertan datza Europar Parlamentuko aholkulari baten lana?**

Lehenik eta behin argitu behar da mota ezberdinetako aholkulariak daudela Europar Parlamentuan. Alde batetik, eurodiputatuen aholkulariak, zeinek zuzenean hautetsiekin lan egiten dute. Hauek txostenak prestatu, hitzaldiak idatzi edota bisitan datozen taldeei harrera egin – oso zeregin desberdinak! Bestetik, taldeentzat lan egiten dugun aholkulariak: hauetako gehienak aholkulari “sektorialak” dira, adituak gai zehatz batean (adibidez, kultura, ekonomia edo nazioarteko aferak), eta taldeen interes politikoa bermatzen dute. Azkenik, taldearen idazkaritzarentzat lan egiten dugunok, gehien bat koordinazio lana egiten dugu. Agendak jarraitu, bilerak prestatu, aktak idatzi, eurodiputatuen bulegoekin lotura, etab.

**2019–2024 legealdiari buruz ze balorazio egiten duzu?**

Bi gai nagusitu dira Bruselan legealdi honetan: COVID–19a eta Ukrainako gerra. Bietan, Europar Parlamentuak eta Komisioak, lidergoa erakutsi nahi izan dute, estatuen arteko desadostasunak konpontzeko, baino erabaki gehienak, Kontseiluak – hau da, estatu buruak – hartu ditu. Nahiz eta bi gertakizun hauek garrantzi handia izan duten Europar gehienentzat, EBn ez da erabaki eraldatzailerik hartu azken urteetan, eta estatu buruen pisu politikoa handitzen doa. Azkenik, bi gai huen inguruan, erabaki *“geoestrategiko”* asko hartu dira, baino nire ustez, behar ziren baino neurri sozial gutxiago adostu dira.

**Ezin dugu Europako hauteskundeei buruz hitz egin abstentzioa aipatu gabe. Zeri erantzuten dio hauteskunde hauetan erregistratu ohi den abstentzio altua?**

Gizartearen gehiengoak Europako instituzioak oso urrun ikusten ditu. Eta normala da horrelako hautematea izatea. Europar Batasuneko instituzioak korapilatsuak eta opakoak dira gehien bat. Zaila da ulertzea nork jokatzen duen rol bakoitza, batez ere, estatuetako instituzioekin alderatzen baldin baditugu. Beraz erraz ulertzen da jende askok deskonexio maila altu hori izatea. Ordea, gogoratu beharra dago, hainbat politika garrantzitsu Bruselan erabakitzen direla.

**Zer egin daiteke Europako erakundeak herritarrentzat hurbilagoak izateko?**

Hiritar bezala, erantzuna erraza da. Erakunde horien eraldatzearen alde dauden alderdiei bozka ematea. Gehiengo berriak behar ditugu Europar Parlamentuan zein Kontseiluan botere–oreka aldatzeko. Kontseiluak (Europar estatuen gobernuak eta haien ordezkariak Bruselan) botere gehiegi du, eta Parlamentuak, gutxiegi. Beharrezkoa da egoera honi buelta ematea. Horretaz gain, oso interesgarria izango litzateke Komisioaren Presidentea, Europar Hauteskundeetan zuzenean bozkatzea.



**Zergatik da garrantzitsua euskaldunok Europako hauteskundeetan bozkatzea?**

Euskal bozkarik gabe, euskal ordezkaritzarik ez! Estaturik gabeko herri bezala, Komisiora zein Kontseilura sartzeko Paris edo Madriletik pasa behar gara. Eta badakigu hori ez dela inoiz gauzatuko. Horregatik, Europako Parlamentua da euskal herritarrok Europan zuzenean ordezkatuta egoteko daukagun erakunde bakarra. Hautetsi horiei ezker, gure herriaren interesen defentsa egin daiteke Bruselan.

**Pedro Sanchezen inbestidurarako negoziazioetan, Sanchezek Europar Batasunean katalanaren, euskararen eta galizieraren ofizialtasuna bultzatzeko konpromisoa hartu zuen. Gai honetan aurre pausorik egon da?**

Espainiako gobernuak hizkuntza horien aitorpena jada eskatu du. Ikustear dago eskaera horren inguruan zer nolako defentsa egiten duen. Horretaz gain, beste estatu guztien ahobatezko babesa lortu behar du eta hor zailtasunak daude PPk erabaki honen aurkako “lobby” lana egiten hari delako.

**Adrián Fuentes Arévalo** | Bilbo, 1994
Nazioarteko–harremanak ikasi zituen Londreseko Queen Mary unibertsitatean • Gazte Abertzaleakeko kidea • 2022tik Europar Parlamentuko EFA–Greens taldeko aholkularia da.

# "EAJ–PSEren Hezkuntza Legearekin aukera bat galdu da, baina aukera berriak irekiko ditugu"

Iban Asenjo



**Zer jakin behar dugu PNVk eta PSEk adostutako Hezkuntza Lege berriari buruz?**

Herri akordio zabal moduan hasi zena, PP eta VOX kenduta, alderdi politiko guztion babesa jaso zuena, PNV–PSE gobernu akordio moduan bukatu da. Hezkuntza Lege indartsu bat osatu beharrean EAJk nahiago izan du bere hauteskunde–beharrei lehentasuna ematea, hurrengo hauteskundeetarako PSEren sostengua bermatuz.

**Erkidegoan, 5 ikasletik 4k ez dituzte behar diren hizkuntza mailak betetzen. Zergatik mantentzen dituzte hizkuntza ereduak?**

Beldur dira hizkuntz propioen hedapenarekin espainiar sentimendua eta atxikipena desagertzen joatea eta Estatuko botere faktiko guztiak erne daude edozein aurrerapauso ekiditeko. PSE Estatua da. Euskal Herrian ez dago euskara ikastea eta erabiltzea baino ekintza iraultzaileagorik.

**Zein egoeratan geratzen da euskara? Kezkatzekoa al da?**

Legea, euskarari dagokionez, iruzurra da. Legean jasota dago euskara izango dela hezkuntza sistemaren ardatza eta, era berean, euskalduntzen ez dituzten A eta B eredua mantentzen dituzte. Are gehiago, euskarari ez zaio egozten eskola ordutegiaren barruan ordutegi minimo bat eta, aldiz, inongo oinarri teknikorik gabe, 2 urtetik aurrera ingelesaren presentzia areagotu dute. Itsu–itsuan ari gara euskarari lekua kentzen.

**Zure ustez, zer dio biztanleriak erkidegoko egungo hezkuntza kalitateari buruz?**

Gizartean zabaltzen ari den irudia gero eta ezkorragoa da. Eusko Alkartasunak Hezkuntza Saila kudeatzen zuenean beste prestigio eta beste onarpen bat zegoen. Hezkuntza komunitateari begira, nekea izugarri handia da, irakasle askoren desmotibazioa gero eta nabarmenagoa da eta gobernuaren babesa eta grina gauzak hobetzeko ez da antzematen. Hezkuntza lege honen aurka hezkuntza sindikatu gehienak, zuzendari edo gurasoen elkarteak, eta Ikastolen Elkartea kontra egotea ez da kasualitatea. Legebiltzarrean PNV–PSEren babesa bakarrik dauka eta hezkuntza eremuan soilik UGT eta Eskola Kristauarena.

**PNV–PSEren ereduaren aurrean, zein izan da EH Bilduren proposamena?**

EH Bilduren apustua, hasiera-hasieratik, EAJrekin batera legerik onena eraikitzen laguntzea izan da, jakinda EH Bilduren proposamen guzti–guztiak ezingo zirela inplementatu. 1993ko Euskal Eskola Publikoaren legea, "Buesa legea" mugatzailea gainditzea helburu.

EH Bilduren proposamena hirukoitza izan da. Alde batetik, eskola segregazioari aurre egitea, gaur egun gure sisteman dugun arazo lazgarrienetako bat dena. Bestaldetik, eskola publikoa *vs* pribatua dikotomia gainditzea eta segurtasun juridiko handiago ematea hezkuntza helburuekin bat datozen ikastetxeei eta, bukatzeko, jakina txostenen emaitza kaxkarrak aurre egitea eta hezkuntza kalitatean hobetzea eta sakontzea, beti ere, euskara sistemaren ardatzean jarrita.

Dena den hasieratik, lehentasunak ordenatzeko unean gabeziak izan ditugu. Estatuarentzat arazoa ez zen zein nolako garrantzia eman behar genion eskola segregazioari edota gure eskola itundueк zer nolako aterki juridikoa izan behar zuten. PSEren lehentasuna ez da eskola publikoa indartzea.

**Eragileetatik ekimen ezberdinak martxan jarri dira. EAk, jakina, bat egin du deialdiekin, baina zer egin daiteke hemendik aurrera?**

Herri honek historikoki erakutsi duen erresilientzia maila izugarri handia da eta orain berdin izango da. Lanean jarraitzea dagokigu. Aukera galdu dugu baina beste batzuk irekiko ditugu. PNV/PSE gobernua zeharo agortuta dago, ezin die momentu historiko honek eskatzen dituen erronkei heldu. Hortaz, seguru egon berandu baino lehen aldaketa etorriko dela.

**Iban Asenjo Garde** | Bilbo, 1975
Eusko Alkartasunako Euskara, Hezkuntza, eta Kultura idazkaria • Magisteritzan eta Antropologian lizentziaduna • Gasteizko EHUko Hezkuntza fakultateko irakaslea • Ordiziako zinegotzia • Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide izan da.

# Por el impulso de medidas que garanticen el derecho a una vivienda digna y adecuada

Ricardo Burutaran

La vivienda es una de las cuestiones que más preocupa a la ciudadanía vasca, ya que condiciona y lastra sus proyectos de vida.

La aprobación de la Ley del Parlamento Vasco 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda por parte de EH Bildu y el PSE/EE, fue precisamente una respuesta a dicha inquietud. Más recientemente en el ámbito estatal, la Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda, resulta aprobada gracias al acuerdo alcanzado tanto por ERC como por EH Bildu con el gobierno de Sánchez.

Como concejal en el Ayuntamiento de Donostia y ex-delegado de urbanismo y vivienda, conozco de primera mano la grave situación que padece la capital, llegando a situarse el precio medio de la vivienda en venta y alquiler en precios históricos. En Gipuzkoa el precio del metro cuadrado está en unos 3.115 €. En Donostia es de unos 5.400 euros, situándose en 405.000 euros el precio medio de una vivienda de una superficie de 75 $m^2$ y en 1.275 euros el alquiler. Un disparate.

Frente a las machaconas aseveraciones de que el mercado inmobiliario se autorregula, la realidad demuestra que no es así, constituyéndose en uno de los paradigmas del neoliberalismo salvaje.

Por otra parte, planteamientos de desarrollo económico excesivamente ligados a la explotación del turismo, permitiendo su concentración desaforada, han afectado e incluso arruinado, en algunos casos, la cohesión social de barrios y ámbitos urbanísticos. Es evidente que algo había que hacer y por eso, aunque mejorables, hemos acordado ambos proyectos normativos.

Ambas leyes dotan a las administraciones públicas de instrumentos que les permitirán, entre otras cuestiones, actuar para que las viviendas cumplan con su función social, dejando de estar deshabitadas y pasando a dar respuesta al fin para el que fueron edificadas. La Ley estatal contempla la posibilidad de declaración de un municipio, o parte de él, como zona tensionada de vivienda siempre que los precios de los alquileres hayan subido tres puntos más que el IPC en los últimos 5 años, o que el pago de alquiler suponga más del 30% de los ingresos de los hogares.

Quienes votaron en contra, tanto de la aprobación de la Ley 3/2015 del Parlamento Vasco como de la Ley estatal 12/2023, dicen que la declaración de la zona tensionada de vivienda no contendrá los precios. Cabe responderles que, tal y como establece la citada normativa, la declaración de un ámbito territorial



como zona de mercado residencial tensionado implica el desarrollo de medidas para reducir los precios y estimular la oferta de vivienda asequible en propiedad y en alquiler. Además, la declaración de un ámbito territorial como tensionado en materia de vivienda residencial sirve también para poder calificar como viviendas de protección pública, por tanto, como viviendas con precio de venta limitado, aquellas que puedan edificarse o surgir como consecuencia de cambios de uso, edificaciones de levantes, producto de segregaciones o de grandes reformas.

Si no tomamos cartas en el asunto cuanto antes, liderando el cambio de modelo desde las instituciones, en menos de una década nos echaremos las manos a la cabeza y ya será tarde. Insistimos en que hay que regular el mercado, sobre todo los desorbitados precios de los alquileres.

Y que no nos intenten confundir ondeando la bandera de la autonomía vasca para invalidar la ley estatal 12/2023 quienes votaron también en contra de la Ley vasca de vivienda en el 2015. Por encima de interpretaciones torticeras, los hechos demuestran que el PNV está en contra de las políticas populares de vivienda. Dicen que la lógica del mercado se encargará de solucionar el problema. Y mientras tanto, miles de personas verán sus proyectos de vida lastrados por la imposibilidad de acceder a una vivienda digna y adecuada.

**Ricardo Burutaran Ferré** | Donostia, 1970
Abogado y administrador de fincas • Concejal en el Ayuntamiento de Donostia (1999–2003 y 2011–hoy) • Legislatura 2011–2015: concejal delegado de Urbanismo y Vivienda en el equipo de gobierno y juntero en las Juntas Generales de Gipuzkoa.

## La Asamblea Nacional de EA elige a las personas coordinadoras locales de las capitales de hego Euskal Herria



La Asamblea Nacional de Eusko Alkartasuna ha elegido a las personas que se ocuparán de la coordinación local en las capitales de hego Euskal Herria. Galder Agudo (Bilbao), Mikel Osinalde (Donostia), Mari Jose Mangado (Iruñea) y Antxon Belakortu (Gasteiz) han sido las personas elegidas para encabezar sus respectivas coordinadoras locales y trabajar por la dinamización de Eusko Alkartasuna en sus organizaciones locales.

Los estatutos de Eusko Alkartasuna en vigor, aprobados por mayoría absoluta en el Congreso Nacional, establecen que la elección de las coordinaciones de las capitales es competencia de la Asamblea Nacional. Asimismo, toda afiliada o afiliado de las capitales ha tenido ocasión para postularse.

## Itsas Gudari Eguna 2023
## *Izan zirelako gara*



Aurten ere, Itsas Gudari Eguna ospatu dugu Bermeon. Martxoaren 5eko ekitaldian lore eskaintza egin genuen Nestor Basterretxearen *"Matxitxakoko Guda"* eskultura dagoen tokian. Eguerdia pasata Bermeoko Kafe Antzokian Aingeru Astui, itsas kapitaina, idazlea eta Arrantzaleen Museoaren zuzendari ohiak eman zion hasiera ekitaldiari. Ondoren, Idurre Bideguren ,EH Bilduko senataria, eta Asier Larrauri, gaurkotasunaren inguruan solasetan ibili ziren.

Azkenik, Eba Blanco idazkari nagusiak, hitza hartu zuen itsas gudariak omentzeko.

## La justicia avala de manera definitiva los estatutos y la dirección nacional de Eusko Alkartasuna




El Juzgado de Primera Instancia nº 6 de Vitoria–Gasteiz ha rechazado admitir a trámite el recurso presentado por varios afiliados contra la sentencia que rechazaba anular los acuerdos adoptados en el XIII Congreso Nacional de Eusko Alkartasuna celebrado en febrero de 2023.

Con esta resolución judicial se da carpetazo a todas las causas abiertas contra el congreso de febrero de 2023, confirmándose la legalidad de las decisiones adoptadas en el cónclave, lo que incluye el nombramiento de Eba Blanco como secretaria general y del resto de miembros de la dirección nacional, así como de los nuevos estatutos.

## Mahai–ingurua Gasteizen alderdiaren urteurrena ospatzeko



Alderdiaren 37. urteurrena, mahai–inguru batekin ospatu genuen Gasteizen Irailaren 4an. Ordubetez, gogoeta eta azterketa–esparru interesgarria sortu zuten Idurre Bidegurenek (senataria Madrilen), Lore Martínez Axpek (parlamentaria Gasteizen), Xebe Txoperenak (parlamentaria Nafarroan), Lorena López de Lacallek, (Nazioarteko Harremanetarako Idazkaritza), Iñaki Ostolazak (Zumaiako alkatea) eta Jokin Melidak (Gipuzkoako batzarkidea).

Ekitaldia ixteko, Eba Blanco idazkari nagusiak hitza hartu eta efemeridea ospatu zuen, *"harrotasunez egindako lanagatik, eta denbora honetan lurperatu nahi izan gaituzten guztien etsipenerako"*.

## Eba Blanco pide que se ponga en marcha ya el fondo de compensación estatal para las víctimas del amianto



Eba Blanco, secretaria general de Eusko Alkartasuna y parlamentaria de EH Bildu, ha pedido en el Parlamento Vasco que se publique cuanto antes el real decreto que contempla la creación del fondo de compensación para las víctimas del amianto.

El Parlamento Vasco, tras pasar nada más y nada menos que trece años trabajando el fondo de compensación, cerró el asunto una vez aprobado el último trámite de la ley en el Senado. Desde hace un año existe una ley *"que podría estar ayudando y acompañando a muchas de las víctimas del amianto, pero a día de hoy está paralizada. El Gobierno las ha dejado desamparadas a las víctimas y las ha menospreciado todo este tiempo"*, ha añadido Blanco.

## Eusko Alkartasunak euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadila eskatu dio Chiviteren gobernuari



Eusko Alkartasunak Maria Chivite sozialistak buru duen koalizioko exekutibo berriari eskatu dio legegintzaldi berri honetan 40 urteko zonifikazioarekin bukatzea, euskara nafar guztiona dela aitortzea eta herrialde osoan hizkuntz eskubideak bermatzea.

Nerea Gartzia Eusko Alkartasunako Nafarroako koordinatzaileak adierazi duenez, *"hizkuntza–eskubideak urratzen dituen gobernu batek ezin du bere burua progresistatzat hartu, hizkuntza–eskubideak giza–eskubideak dira eta Nafarroa osoan bermatu behar dira nafar guztientzat"*.

## Estrenado el documental *“El Caso Freytter”*, que ha contado con el patrocinio de la Fundación Alkartasuna

Este documental busca impulsar el esclarecimiento del asesinato en 2001 del sindicalista, abogado y profesor de la Universidad del Atlántico (Barranquilla–Colombia), Jorge Adolfo Freytter Romero, y denunciar la persecución del pensamiento crítico y la desigualdad de tierras en el país.

La cinta, cuyo hilo conductor es el regreso a Colombia de uno de sus hijos, Jorge Freytter Florian, tras 17 años de exilio, explora las circunstancias del crimen, reconocido de *“lesa humanidad”* por el estado colombiano en 2020, así como la violencia infligida en el país por paramilitares contra líderes comunitarios, académicos críticos, sindicalistas y defensores de los derechos humanos.




## Eusko Alkartasuna exige la implicación internacional para parar cuanto antes la masacre de Gaza

El 24 de noviembre, el Consejo Nacional de Eusko Alkartasuna emitió una declaración para condenar tanto el bárbaro ataque de Hamás del 7 de octubre, así como los consiguientes ataques indiscriminados del ejército de Israel en la franja de Gaza. El órgano del partido, además de solidarizarse con la población palestina, reclama el cese inmediato de las hostilidades, la entrada de ayuda humanitaria, y la implicación de toda la comunidad internacional para que se llegue a un acuerdo de paz.



## Alkartasuna Fundazioak bat egin du Aldatu Gidoia kanpainarekin

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen diogu gidoia aldatzeko euskararen alde, kultura eta ikus–entzunezkoen politikak errotik aldatzeko, euskara erdigunean ipiniz, eta euskarazko ikus–entzunezkoen eskaintza zabal, duin, eguneratua eta erakargarria urgentziaz osatzeko eta publikoari eskuragarri jartzeko, EITBren euskarri eta leihoetan, eta, EITBz harago, zinema eta streaming plataformetan.

aldatugidoia
EUSKARAREN ALDE
Eusko Jaurlaritzaren kultura eta ikus-entzunezkoen politikak errotik aldatu eta euskara erdigunean jartzearen aldeko kanpaina

## Euskararen aurkako oldarraldi judiziala salatu du EAk

Eusko Alkartasunak euskararen aurkako kanpaina judiziala berehala amaitzeko eskatu du. Hiru hilabetean hizkuntza–arloko politika publikoen aurka emandako bigarren epaia ezagutu berri ondoren, alderdiak oso larritzat jotzen du egoera. Era berean, VOXen salaketa kontuan hartzen duen erabakiaren aurrean Eusko Jaurlaritzak iragarritako errekurtsoa babesten du.

Egoera honen harira, Eusko Alkartasunak Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon egin zuen manifestazio jendetsua babestu zuen eta bertara bidali zuen Eba Blanco idazkaria nagusia buru zuen ordezkaritza zabal bat.




## La Fundación Alkartasuna organiza un taller formativo sobre Neuropolítica

Los días 4 de noviembre y 16 de diciembre, la Fundación Alkartasuna organizó en Bilbo y Gasteiz dos sesiones formativas de Neuropolítica, la gestión sostenible de las emociones en el ámbito político. El periodista y EAkide Mikel Oraá, desgranó cuestiones como qué es la política, cuáles son las preocupaciones del electorado, o dónde se ganan las campañas electorales. La tercera sesión, prevista para enero, será en Donostia.




## Alkartasuna Fundazioak lanean jarraitzen du Forum Subiranista indartzeko helburuarekin

2023an, Alkartasuna Fundazioak lanean jarraitu du Estatuko ezkerreko beste erakunde politiko, sindikal eta kultural subiranistekin Forum Subiranista elkartearen bitartez. Forum Subiranista osatzen duten eragileek maiatzeko udal hauteskundeetako eta uztaileko hauteskunde orokorretako emaitzen analisia eta hausnarketa bateratua egin dute, Estatuan irekita dagoen abagunea azpimarratuz.

Bestetik, Fundazioak Forumak urtero antolatzen duen Eskola Subiranistan parte hartu du. Aurten topaketa hauek Mallorkan ospatu dira *"Burujabetza eta trantsizio ekosozialerako politika eraldatzaileak"* leloarekin.



alkartasuna
fundazioa

alkartasunafundazioa.eus • info@alkartasunafundazioa.eus

@alkartasun

euskoalkartasuna.eus • info@euskoalkartasuna.eus

@ealkartasuna @euskoalkartasuna

**ARABA**
San Frantzisko kalea, 22 • 01001 • GASTEIZ
Tel. 945 23 27 62
araba@euskoalkartasuna.eus

**BIZKAIA**
Areatza, 2–3 • 48005 • BILBAO
Tel. 94 416 10 33
bizkaia@euskoalkartasuna.eus

**GIPUZKOA**
Portuetxe Bidea, 23 • 20018 • DONOSTIA
Tel. 943 02 01 30
gipuzkoa@euskoalkartasuna.eus

**NAFARROA**
Plaza del Castillo, 49 – 1° • 31001 • IRUÑA
Tel. 948 22 06 91
nafarroa@euskoalkartasuna.eus

**IPARRALDE**
34 Rue Pannecau • 64100 • BAIONA
Tel. 05 59 25 50 98
iparralde@euskoalkartasuna.eus